



Ekipoa	Briketak egiteko prentsa
Kodea	C-3001
Ingurumen-hobekuntza	<ul style="list-style-type: none"> - Barruko hondakinak murrizten ditu. - Labe mota jakin batzuen energia-efizientzia hobetzen du. - Zenbait emisio minimizatzen ditu. - Lehengaien kontsumoa murrizten da (besteak beste, metal astunak).
Honetan datza:	<p>Prentsa briketatzailea material hauen aurre-tratamendurako erabiltzen da: kontzentratuak, lohi metalikoak, lokatzak, lohiak, galdaketa-labeen keetatik datozen partikula solidoak, hauts metalikoak, aluminiozko txirbilak, magnesiozko txirbilak, txirbil metalikoak, letoizko txirbilak, kobrezko txirbilak eta bigarren mailako beste material batzuk. Teknika hori ez da aplikagarria zink kontzentratua berreskuratzen duen hauts-birziklapenerako.</p> <p>Briketak egiteko prentsaren bidez, bigarren mailako material horiek zilindro trinko bihurtzen dira, antzeko tamainakoak; sendotasun egokia lortzen dute konpresioaren bidez, eta ezaugarri fisiko eta kimiko iraunkorak izaten dituzte. Halaber, irmotasun egokia izaten dute zatitu gabe erabili ahal izateko, eta, halaber, errazago maneiatu ahal izateko. Zilindro horiek birziklatu egin daitezke; adibidez, berriz ere galdaketa-labeetara eramanez edo beste instalazio batzuetara tratatzera eramanez.</p> <p>Briketatzeko, batzuetan substantzia trinkotzaile ezberdinak erabili behar dira, besteak beste, beira-industriako zementua. Horrek badu ondorio negatibo bat: sulfuro dioxidoaren emisioek gora egiten dute, zementuaren sulfuro-edukiaren ondorioz. Hala ere, energia-kontsumoa gutxitzen du, eta, gainera, briketetan beste material fin batzuk gehitzea errazten du, adibidez, galdaketa-harea.</p> <p>Metalaren industrian beste gehigarri batzuk ere erabiltzen dira briketen neutralizazio termikorako (adibidez, antrazita).</p> <p>Bateratzeko osagaiak edo ura gehitu ondoren, prentsa batean sartzen da nahastura. Prentsak briketak sortzen ditu, trinkotzeko danbor edo disko birakari baten bidez.</p> <p>Tamaina askotako hauts-partikulekin eta 5 mm-tik gorako txirbilekin erabil daiteke teknika hori. Bestalde, ekoizpen-ahalmen handia lor daiteke (7.000 kg/h, gehienez), materialaren eta granulometriaren arabera.</p>
Zein sektoretan aplikatu daitekeen	<p>Honako sektore hauetan aplikatu daiteke:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Metalaren industria (ferrikoak eta ez-ferrikoak) (NACE 24).



- | | |
|--|--|
| | <ul style="list-style-type: none">- Beira-industria (NACE 23.1).- Hondakin-uren bilketa eta tratamendua (NACE 37).- Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztatzea (NACE 38).- Deskutsatzeko jarduerak eta hondakinak kudeatzeko beste zerbitzu batzuk (NACE 39). |
|--|--|